

Araitz | Betelu | Larraun | Lekunberri

# MAILLOPE

254

2018ko ilbeltza

TOKIKOM

EGUBERRIKO ELKARTASUN KEINUA

# KALEKO HOTZETIK JATETXEAREN GOXOTASUNERA

## KONTZEJUTAKO ALKATEEN ADIERAZPENA ETXEBIZITZA-ARAZOAREN AURREAN

Abenduaren 15ean, "Larraun Bizi" herri ekimenak deituta, Larraungo hainbat kontzejutako ordezkari bildu ginen. Bertan bildutakook adierazpen hau egitea erabaki genuen, Larraun osatzen dugun gainontzeko kontzeju, herri eragile eta udalekin bide berean elkartzeko asmoz.

Azken urtetan gure haraneko herrien (Lekunberri ezik) bilakaera soziologikoa oso kezagarria da. Alde batetik, gero eta biztanle gutxiago gara, herriak husten ari dira, bestaldetik, herritarren adina gero eta handiagoa; datu bat jartzearen, populazio erdiak 50 urte baino gehiago du.

Arazo honi aurre egiteko gazteek herrietan bizitzeko aukera izatea ezinbestekoa ikusten dugu, eta horretarako, etxebizitza lortzeko erraztasunak ikertu, ikasi eta aurkitu behar ditugu.

Bide horretan lehendabiziko pausoak emateko, bidea luzea izango dela jakinda ere, honako proposamenak eta konpromisoak hartzen ditugu:

- Gure herrietako etxe husten zerrenda osatu.

Orain arte, kasu askotan gazteak etxebizitza aurkitu ezinik ibili dira etxe huts asko daude bitartean. Etxe huts horien egoera eta aukeren inguruko zerrenda osatzeko ardura hartzen dugu.

- Bertako araudiak berrikustea eta berritzea proposatzen dugu, etxebizitza lortzerakoan erraztasunak eskaintzeko, betiere bertan bizi nahi dutenentzat.

- Larraungo egoera soziologikoaren inguruan azterketa sakona egitea.

Egungo egoeraren arrazoiak ongi jakiteko eta aurrera begira oinarri sendoak izateko. Horretarako udalak behar diren baliabideak jartzea proposatzen eta eskatzen dugu.

Larraunek etorkizuna badu, ditugun zailtasunei aurre egin eta aukerak aprobeztatu. Bide horretan, denok inplikatuak gaude eta kontzejuok, udalak, herritarrok... denok batera ibili behar gara, Larraun Bizi bat nahi dugulako.

Juani Zabaleta (Alli), Alfontso Etxarri (Arruitz), Joxe Miguel Etxetxikia (Azpirotz eta Lezaeta), Mikel Uharte (Baraibar), Iñaki Malkorra (Errazkin), Ana Aroma (Uitzi)

## EDURNE LIZEAGA ESKISABEL

Edurne, gaur abenduaren 29a denean, Lekunberriko parrokian eta hilerrian egin dizugu azken agurra.

Abenduaren 23an, azken entsegu nagusian agurtu genuen elkar, eta, biharamunean, parrokia berean, berriz ere ikusi genuen ekar eta ilusio handiz parte hartu genuen, zuretzat azken kontzertu bikaina izanen zen hartan. Handik ordu gutxitara gaizki jarri eta 27an utzi gintuzun betiko, zalaparta handirik egin gabe.

Gaur, zure agurrean, denok ikaragarri hunkitu gara zure bihotzeko abesbatzarekin, zure kanta-kideekin, zerorrek Astigarragatik ekarritako abesti ederrarekin, koinatu-koinatekin eta abar, baina, batez ere ikusita zenbat maite zintuzten Joxangelek, Leirek, irantzuk eta abarrek. Eskutik elkar hartuta denbora guztian, buruak ondokoaren sorbaldan bermatuta, negar malkoei ezin eutsita.

Leirek eta irantzuk zure kutxa besarkatu eta musukatu dute. Hilerrian, alabek berriz ere musukatutako lore bana jarri dizute kutxaren alde bakoitzean, eta Joxangelek duintasun osoaz jasan du zure alde egite mingarria.

Edurne, hegan egin Lekunberri, Larraunen, Astigarragan eta Euskal Herri osoan, baina, batez ere segi abesten, gu, gaixo guztiok, kontsolatzeko eta alaitzeko.

Musu asko bidaltzen dizkizugu, musika notaz besteak. Beti arte, Edurne.

Xanti Begiristain Madotz

Zure iritzia bidali nahi badiguzu idatzi mailope@labrit.net-era hilaren 20a baino lehen.

AILOPE:  
GUNDU MAILO  
LAGU

Mailopeko bazkidea izan nahi duzu?  
mailope@labrit.net

SAN MIGUEL  
gasolindegia



Xabier Garmendia 629 350 099  
Arribe-Atallu

**AA** | **FISIOTERAPIA**  
Andoni Ayerdi Olascoaga  
609 536 002 · 948 604 789

Iturritak kalea 7, 31870 Lekunberri  
andoniaofisioterapia@gmail.com



**CARPINTERIA HNOS. AZPIROZ, S.L.**  
ZURGINTZA OROKORRA  
INDUSTRIALDEA 15- LEKUNBERRI  
Telefonoa eta Faxa: 948507343  
carpinteria@carpinteriaazpiroz.com

**OGI-BERRI ALTZA**  
Aralar kalea, 41  
Lekunberri



**OGI BERRI**  
OKIN ARTISAUAK 948604884

**AURRERA  
TABERNA  
ARALAR, 15**  
948 60 47 24

**TAXI  
SOROA**  
609 168 217  
Bederatzi plaza



06



16



22

04 ESKOLATIK MAILOPERA

05 BERTSO BERRIAK: Juan Mari Irastorza.

06 ELKARRIZKETA: Bidegoxo Jatetxea.

10 MOKOKA

11 KUXKUXEAN: Ilbeltzeko zorion agurrak.

12 BATZARRE

14 LUZE ETA ZABAL

16 ERREPORTAJEA: Larraungo herri-dantzak

19 NOR DA NOR?

20 KULTURA

22 ELKARRIZKETATXOA: Berri Txarrak.

24 KIROLA

26 HITZ ASPERTUAN

28 PLAZATIK PLAZARA: Beteluko kantoreak.

30 KONTU TXIKIAK

**• MAILOPE DOAN BANATZEN DA HONAKO HERRIETAN:**

Albiasu, Aldatz, Alli, Arribe, Arruitz, Astitz, Atallu, Azkarate, Azpirotz, Baraibar, Betelu, Errazkin, Etxarri, Gaintza, Gorriti, Intza, Iribas, Lekunberri, Lezaeta, Madotz, Mugiro, Oderitz, Uitz eta Uztegi.

**• ARGITARATZEN DU:**

Mailope Kultur Elkarteak.  
L.G.: NA 719/93  
Mailopek ez du bere gain hartzen bertan adierazitako iritzi eta esanen erantzukizunik.  
[issuu.com/mailopealdizkaria](http://issuu.com/mailopealdizkaria)

**• ERREDAKZIOA:**

Agurtzane Altuna, Urko Aristi, Mikel Hernandorena, Arantxa Mikeo, Ainhoa Beraza eta Andoni Tolosa.

**• ARGAZKIAK:**

Labrit, Ibarberri ikastetxea, Agustin Saralegi, Larraungo Pilota Eskola, Juan Mari Irastorza, Soinuenea, Agurtzane Altuna, Josu Oreja eta Maria Angeles Urrizalki.

**• PUBLIZITATEA:**

Labrit Multimedia - 948 210 103 - [mailope@labrit.net](mailto:mailope@labrit.net).

**• MAKETAZIOA:** Araitz Amatria.**• TIRADA:** 1.600 ale.

Nafarroako Gobernuak, eskualdeko Udal, Kontzeju eta bazkideek babestutako aldizkaria.

Nafarroako  Gobierno de Navarra

**LABRIT**  
MULTIMEDIA

# IBARBERRI



## NI ETA NIRE GORPUTZA

Ibarberri eskolako 1.A mailako ikasleak gara eta Gorputza gaia lantzen ari gara. Gaiari hasiera emateko bertso polit batzuk ikasi ditugu. Ea zuei ere gustatzen zaizkizuen!! Abestu zuek ere!!

Eta nortzuk garen jakin nahi baduzue begiratu arretaz bidali dugun argazkia. ANE, HAIZEA, ALEX, ELI, ANDIA, ZURIÑE, JUNE I., BIKENDI, IXONE, JON, IRATI, MIKEL, GRETA, DANIEL, JUNE Z.

Asmatzen asmatzen, nortzuk dira hor direnak azaltzen?

*Oraindik txikia naiz  
sei urtetxorekin  
lurreraino heltzen naiz  
hanka motz hauekin  
bi belarri bi begi  
sudurtxoarekin  
bi metro neurtu baietz  
hogeit urterekin.*

*Ezkerrean bihotza  
tiki eta taka  
odola gorputzean  
jira eta biraka  
pentsamenduak ere  
buruan milaka  
egunez jolas eta  
gauean zurrunka.*

J. Ormazabal

Doinua: Xarmangarria zara  
Aldapeko sagarraren

## eskolatik mailopera



**aseguru  
gintza  
XXI**

**ASEGURU  
AHOLKULARIAK**

*Zure ondarea eta segurtasuna  
babesteko modu bakarra  
behar bezela aseguratua  
egotea da*

- ▶ [aseguruak@aseguruak.eus](mailto:aseguruak@aseguruak.eus)
- ▶ 943 65 22 20
- ▶ Korreo Kalea 7-baxua 20400 Tolosa



**NEKAZARI, S.L.**

**Kubota**  
**STIHL**

Olagain. Mugiro. Nafarroa  
Tel.: 948504128  
Fax: 948504377  
[nekazarisl@hotmail.com](mailto:nekazarisl@hotmail.com)

**ANTONIO CARRARO**

**BIDEGOXO JATETXEA**

*Jaunartzeak  
Ezkontzak  
Ospakizunak  
Enpresa ekitaldiak*

Usabal Kiroldegia  
20400-TOLOSA 943 577 573  
[info@bidegoxo.com](mailto:info@bidegoxo.com)



## LARRAUN BERDINTASUNEAN

Emakumeen aurkako indarkeria salatuz azaroaren 25ean Larraun eta Lekunberriko hainbat eragilek eta udalek ekitaldi batzuk antolatu zituzten. Eragileen artean *Bilgune Feminista* aipatu genuen, *Larraun Berdintasunean* aipatu beharrean. Talde hori 2016an sortu zen martxoaren 8ari begira eta geroz eta jarduera gehiago antolatzen dabilta.



## SURTIDOREKO BERRITZE LANAK

Arribeko surtidoreko Mikel Deuna jatetxea berritzen dabilta eta berritze lanek iraun bitartean Atalloarran eskaintzen dute zerbitzua. Otsailaren erdialderako dute aurreikusia berriro ere surtidoreko ateak irekitzea.



## SANTA AGEDA BEZPERA

Otsailaren 4an, Santa Ageda bezperako tradizioa jarraituz, gure eskualdeko herrietan barna ibiliko dira herritarrak koplak abesten. Animatu eta atera zaitetz zu ere kalera!

# bertso berriak Mailoperi jarriak: Juan Mari Irastorza (Lekunberri)

### **Eguberri garaia gustatzen al zaizu?**

*Sinismenetik urrun  
nabil, badakizu  
kontsumitzaileontzat  
sasi paradisu  
nik bezala zuk ere  
ederki dakizu*  
(Doinua: Igaran egun batez)

*Igor, aurtengo eskutitzean  
ez gero asko **eskatu**  
ze Olentzerok bestela ere  
izaten du nahiko **gastu**  
kontsumismoa tranpa da eta  
txorakeriak **ahaztu**  
gertukoenez inguraturik  
ahal den ongien **pastu***  
(Doinua: Adixkidia Andoaindikan)

### **Hurrengoarentzako puntua:**

Nola bizi zenuen  
BEC-eko finala?

### **Oinak:**

Prestu, estu, leku, mendeku.



## “Bazkariaren ondotik, beti eskertzen dizute”

*Lau urte daramatza Iñaki Goikoetxea beteluarrak Tolosako Usabal kiroldegian dagoen Bidegoxo jatetxean lanean. Eguberri egunean baliabiderik ez dutenei bazkaria eskaintzen diete. Aurten ere Iñaki eta bere familiak kalean bizi diren beste 30 lagunekin batera bazkaldu zuten.*

### **Iñaki, zu beti ostalaritzan ibili izan zara lanean...**

Bai, betidanik sukaldari. Hamabost urtekin hasi nintzen, osaba bat nun sukaldarie eta horren medioz. Eskolako balio nun beño sukaldea re gustatzen zitzaien eta ordun lana zeon, oain dela 35 urte.

### **Non hasi zinen?**

Donostian hasi nintzen Self Service baten, Oca jatetxean, oso famatue zen lehen. Han udaran ibiltzen nintzen eta negun San Patricio ikastetxe ingelesera joaten nintzen sukaldea, osaba han baitzeon. Udaran toki desberdinetan lan itteko aprobetxatzen nun eta gero neguan ikastetxe hartan. Ondoren, ia hamar urte ein nittun Dana Onan, Lasarteko hipodromoko erretegin.

*“Normalen urrin hasi eta sanferminetaino astebururo lanez lepo ibiltzen ga”*

### **Eta gero Beteluko ostatuan ere ibili zinen...**

Bai handik Betelura joan nintzen 31 urtekin eta han hasi eta lehendabiziko urtean loteria eman nun. Eta gero beste beatzi urtetan segitu nuen, baina ordureko bi seme-alabak banittun eta Garberan, ostalaritzako enkargatu bezala lan eitteko aukera atea zitzaien eta han beste lau edo bost urte eondu nintzen. Han ez nintzen sukalden aittu, han gerente bezala ibili nintzen eta asko ikasi nun. Sei lokal nittun desberdinek eta langileen kontratazioak, eskaerak... Ondoren bertako nagusiak bazuen lan horrekin jarraitu nahi zuen seme bat eta ni kalean gelditu nintzen. Sekulen langabezin egon gabe nintzen ordura arte eta hasieran ondo, beño gero agobiatzen hasi nintzen pixkoak eta San Migeleko santutegiko jate txeko sukaldari postua sortu zitzaien. Hara joaten hasi nintzen asteburutan eta oso pozik joaten nintzen, gañea tokie oso gustokoa dut. Beño gero aukera hau atea zen eta oan dela bost urte azaroan honea etorri ginen.

### **Eta zer moduz?**

Ondo. Lan askokin, hemen futbol pistak dittu, igerilekuk, atletismoko pista, eskalada, dantza mota guzik... denetik itten da hemen! Egunero-egunero irikitzea oso exigentea da. Hemen asteburuero dao txapelketan bat. Normalen urrin hasi eta sanferminetaino astebururo lanez lepo ibiltzen ga. Abuztua izaten da hemen hilabeteik lasaiena.



Iñaki Goikoetxeak lau urte daramatza Bidegoxon lanean eta hamasei langile dabilta gaur egun bertan lanean. Arg: Labrit.

**Eta zer da eskaintzen duzuen?**

Alderdi hartan ematen dittu plater konbinatuak, ogitartekoak, sandwichak, entsaladak... Eta beste alderdi hontan karta eskaintzen dugu. As-tean zehar ematen dugu eguneroko menua, baina 20 eurokoa pixko bat berezie eta asteburua menu hobexego bat 32 euro ingurukoa. Eta gero enkargu asko izaten ditugu bes-telako otorduetarako. Oain adibidez urtarrilan 1ean menu berezi bat itten dugu eta aurten 180 bazkari emanen dire.

**Urte osoan zehar egunero-egunero irekitzen duzue...**

Bai, gabon gauean arratsaldeko zortzietatik aurrera eta eguberri egunean bakarrik ixten dugu.

**Eguberri egunean itxi bai, baina gonbidatu bereziak izaten dituzue, ezta?**

Egun horretan Silvia eta ni bi seme-alabekin etortzen gea eta baliabide gutxi dituzten pertsonekin bazkaltzen dugu. Hemen lanean hasi eta handik urtebetera eman genuen lehendabizikoz bazkari hori. Ni Tolosa erosketak ittea joaten nintzenen jende pobrea ikusten nun eta beti izan dut sentsibilitatea haiekiko. Pentsatzen ibiltzen nintzen zerbait egin genezakeela horientzat ere eta Eguberri egunean bazkaritara gonbidatzearen ideia sortu zitzaigun.

**Eta lehenengo urte hartan nola antolatu zenuen bazkari hura?**

Idea hoi okurritu zitzaien eta Tolosako udaletxea jun eta aurkeztu nien ze ideia giñauken eta Gizarte Zerbitzuko Departamentukoek onartu zuen. Beak badakite eun hoietan gutxi gorabehera zein dabilzan egoera txarrean. Nik esaten nien laguntzak jasotzen dituztenei ezetz, nik egitazko beharra zuten jendea



Tolosako Usabal Kiroldegian dago Bidegoko jatetxea. Arg: Labrit.

gonbidatu nahi nuela. Ordun nik gonbidapenak itten ditud, udaletxea eamaten ditud eta beak arduratzen die banatzeaz kalean bizi direnen artean eta Tolosan dagoen etxerik gabekoentzako harrera zentroan gau hortan lo eitten duenai ere ematen diete aukera etortzeko.

**Eta zer moduz?**

Boluntario bat sortu zen launtzea etorri nahi zuena launtzea eta hue hiru urtez etorri izan da, aurten ezin izan zuen eta beste batek deitu zigun bere burue eskainiz eta oso ongi. Lehendabiziko urtea izan zen bereziena, ez dakizulako zeinekin topatuko zaren. Gainea kriston eualdi txarra tokatu zen eta nik emazteai esaten nion: "Jo, egueldi honekin ez da inor etorriko! Eta urte hartan izan zen gehien etorri zien urtea. Aurten adibidez, kriston eguraldie ein zun eta gutxigo etorri zien, 30 inguru. Eguraldi onakin ez dute holako beharrik sentitzen.

**Nolakoa izaten da otordu hori?**

Txukun-txukun jantzita etortzen die. Eguerdiko hamabiterditan geatzen gea beraiekin, aperitibo pixkoat ateratzen degu eta gero janari errea

*"Aurten hedabideetan ikusi gaituzte askok eta eskerrak emanez etorri zaizkigu"*



## BIDEXO JATETXEA

Usabal Kiroldgia  
20400 Tolosa  
943 57 75 73  
info@bidegoxo.com

egite degu: frijitu batzuk, arrain zopa, haragi gixatue eta gero tarta izozkiakin. Baina nik ikusten det jateko baino edateko behar gehiago izaten dutela. Ur botil guzik beteta gelditzen die eta erabat ardoa eskatzen. Noski, kaleko hotza aguantatzeko berotu beharra izaten dute eta iruditzen zait haietako askok menpeko bihurtzen direla. Baina muga jarritz gero ez dute problemik ematen. Eta jan ere gustoa egiten dute. Oso iririk die.

### Zein profileko pertsonak izaten dira?

Denetik, aurten ama bat eta ume bat ere etorri dira. Ama Ukraniarra zen eta umeak hiru urte ere etzittun izango. Beti izaten dire emakumezko batzuk, baina gizonezkoak beti gehiago. 40-50 urte bitarteko jendea

izaten da gehiena. Batzuk badire errepikatzen dutenak, baina urtero berriak daude.

### Atzerritarrak ere badira tartean...

Ba, aurten ukrainiar bat, Txekosloboakiako beste bat bazen, argentinar bat... Beti izaten dira atzerritar batzuk eta gainontzeoak hemen egunerokoan Tolosako kaleetan eskean topatzen dituzunak die. Gero urtean zehar topo eginez gero hurbiltzen die eta nik harreman ona dut beraiekin. Bazkariaren ondotik, beti eskertzen dizute. Hau laugarren urtea izan da eta orain arte ez ditugu kamarak sartzen utzi, normalean eurek ere ez dutelako nahi izaten.

### Pertsona horiek ez dute izaten Eguberriak familian pasatzeko aukerarik?

Denetik dao! Badira kalean urte asko daramatzatenak eta eraman duten bizimoduagatik senitartekoez etsia hartu dutenak eta bestalde, badira ere bere familikoez ez dakitenak horren gaizki daudenik eta kalean dagoen horrek ez du nahi izaten senideek bere egoeraren berri jakiterik. Horiek izaten dira normalean argazkietan atera nahi ez dutenak. Baina denetarik dago. Orain arte bezero batzuk kejaru egiten zitzaizkigun egun hortan ez giñulako irikitzen eta ez zuten ulertzen egun horretan beste pertsona batzuentzako irekitzen genuela azaltzen genienean. Aurten hedabideetan ikusi gaituzte askok eta eskerrak emanez etorri zaizkigu.

GRUPO TANATORIO  
**IRACHE**  
TANATORIO TALDEA

948 19 70 70  
www.tanatoriosirache.es

TANATORIOAK: ALTSASU-IRURTZUN-  
LEKUNBERRI-BETELU-LEITZA

**urrutia**  
enea

etxeko hestekiak

**LEKUNBERRI**

**OTXOTORENA**  
okindegia

**ARRIBE**

**ADIII TLF BERRIA:**  
948 51 30 32

panaderia okindegia

**GALBURUeco**

Egurrezko laboreko ogi ekologikoa

Alde Zaharra 50 LEKUNBERRI 31870  
948 50 40 42



# HAU EZ DA ZABORRA, ONGARRIA BAIZIK

Gai organikoen hondakinak bereizi eta birziklatzea eskuzabaltasunez eta zureekiko eta etorriko direnekiko konpromisoz jokatzea da. Zure laguntzak gas kutsatzaile gutxiago igortzeko, lurrerako ongarria ekoizteko eta energia berriztagarriak sortzeko aukera ematen du.

**EZ EGIN PASO ORGANIKOAZ!**



## Armen negozioia



●● Mikel Hernandez

Kaixo Andrea!! Zer moduz dena? Eguberriak iristeko go-goekin imajinatzen dut. Azken aldi honetan ez dugu ezer ere entzuten Siriako gatazkari buruz, baina han hemen bezain Eguberri onak igaroko ote dituzten zaila ikusten dut. Hain zuzen ere, gaurkoan planteatzen dudan gaia gatazka armatuak egotea bideratzen duen negozioia da, armen negozioia, hain zuzen ere.

Duela gutxi, Rosenborg talde norvegiarrak Dubaien bira bat egin behar zuen, baina bertako zaleek klubari ultimatum bat eman zioten: bertako bira atzera bota ezean, beraien bazkide txartelak bertan behera utziko zituzten. Arrazoietakoa bat, estatu hauek giza eskubideak ez errespetatzea zen, baina Arabia Saudirekin eta beste herrialde asko eta askorekin batera burutzen duten armen negozioia ere salatu beharreko alderdia dela deritzot.

Lotsagarria da, hasiera batean, giza eskubideak eta askatasuna defendatzen duten pertsona asko herrialde hauetara dirua irabaztera joatea. Espainia, Frantzia, Alemania, Estatu Batuak, Txina... Nik uste oso herrialde gutxi geratzen direla negozio nazkagarri honetatik kanpo. Duela egun gutxi batzuk, mugimendu feministako kide batzuek, Bilboko portuan kateatuta, protesta egin zuten Bilbotik armak ateratzearen aurka. Oso polita da giza eskubideen alde egotea, baina askotan patrikak diruz betetzeak indar gehiago du, tamalez. Oso ohikoa da famatua den jendea negozio hau sostengatzen duten herrialdeetara joatea. Giza eskubideen alde bai, baina, diruak dena gailentzen du. Bitartean, Siriatic, Iraketik... jendea laguntza eskatzen eta gehiegikeria hau bukatzeko eskatzen. Oso tristeza benetan.

Nola ikusten duzu gai hau Andrea? Zerbait egin dezakegu herritar bezala? Bide batez, Eguberri onak pasa guztiek eta hobeki hasi urtea!!!



●● Andrea Etxarri

Urte berri on Mikel! Ongi, egia esan beti dator ongi geldialdixto bat familiarekin gozatu eta deskantsatzeko. Bai, asko dira egunerokoan mahai gainean dauden gaiak, eta hauen artean badirudi Siriako gatazka ez duela lekurik azken aldira.

Eguberrietan eta Siriako egoeran pentsatuta burura datorkit egoera hau sufritzen ariko diren milioika pertsonak. Eta haien artean, oso ahula den sektorea, haurrak. Aurren ere, beste azken 5 urteetan bezalaxe, miseria eta sufrimendua jasoko zuten opari.

Guk ditugun eskubideak edo abantailak izatera iristeko bide luzea dute, eta oraindik ere, estatu guztiek defendatzen eta goraiatzen dituzten Giza Eskubide oinarrikoenak ere ez dituzte betetzen haien baldintzek.

Egoera testuinguruan jar dezagun: 5 milioi haur bonben hauspean eta 3 milioi errefuxiatu, asko etxerik gabe eta neguak hotzez pasaz, guda estrategia moduan urik gabe geratzen diren herrixkak, ospitaleen erdiak funtzionatu gabe, 3 eskolatik 1 suntsiturik (eta ondorioz 2,5 milioi haur hezkuntzarik gabe), lanean diharduten haurrak, guda dela eta itsu, herren, familiarik gabe geratu diren milaka haur... Azken finean, haien bizitzan guda besterik bizi izan ez duten milioika gizaki, haurtzaro osoa beldurrez eta gizakion gizatasun falta bizitzen pasa duten haurrak. Ez al da nahikoa neurri zorrotzak hartzen hasteko?

Egia da egoera kolpe batez konpontzea ezinezkoa dela, oso gai mamitsu eta korapilatsua delako; hala ere, ahal dugun heinean bai epe laburrean bai epe luzean gutako bakoitzaren ekintzek planetaren beste tokietan dauden horietako batzuen bizitzak pixka bat hobe dezakeela. Epe motzean esaterako: Gobernuak kanpoko erakunde bidez gure babesa ematea, bertara laguntzera joatea, dugun ezagutza haiek laguntzeko proiektuak egiteko bideratzea, sozialki gudekiko gure gaitzespena adieraztea... Eta epe luzean, tolerantzia, eskuabaltasuna eta gure artean positiboki harremanetzeko baldintzak sortzen hastea. Animatuko?





**Enara Etxarri Urbizu**

Ilbeltzak 18, 4 urte.  
Zorionak Enaratxu, gure neguko txoriak 4 urte! Muxu potolo bat Araika, aita eta ama.

**Unai Argiñarena Saralegi**

Ilbeltzak 16an 3 urte.  
Zorionak gure etxeko txispari.  
Muxu haundi bat etxekoen partez!!



**Mikel Buldain Garzaron**

Abenduaren 13an, 8 urte bete zituen.  
Zorionak eta egun on bat pasako zenuelakoan.  
Muxu haundi bat, ama, aita eta Aneren partetik.



**Enaitz Iriarte Olano**

Abenduaren 19an, 3 urte bete zituen.  
Zorionak pottolo, eguna gozatu izana espero dugul! Izeba eta amona.

**Amaia Iriarte Olabarria**

Urtarrilaren 5ean 14 urte.  
Zorionak politte!!!  
Asko maite zaituen zure familiaren partez.  
Disfrutatu zure egunaz.



**Aner Arraztio Estanga**

Abenduaren 7an, 9 urte bete zituen.  
9 urte bete dittuzulako, muxu haundi bat etxekoen partez.



**Amaiur eta Mattin Goikoetxea Goiogana**

Urtarrilak 15, 7 urte.  
Zorionak bihotzak!! Zuri Mattin atzerapen pixka batekin... Segi biak beti bezain jator eta alai!!  
Dena maite zaituztegu. Muxu handi bana familia guztiaren partez!

**Mikel Aldareguia**

Urtarrilaren 9an, urte 1.  
Zorionak eta ongi pasa zure egunean.  
Muxu haundi bat, aitatxo eta amatxoren partez.



Mailope aldizkaria zorion agurrak jasotzeko irrikan dago!  
Idatziezaguzu [mailope@labrit.net](mailto:mailope@labrit.net) e-postara hilaren 20a baino lehen.

**Lagunasesoria S.L.**  
Fiskala  
Laborala  
Kontabilitatea  
Seguruak...

k/ Artzanegi, 2 Behea 31870 Lekunberri (Nafarroa) tel/fax 948 504 232  
[lagunasesoria@terra.es](mailto:lagunasesoria@terra.es)

**SOTIL GARAJEA**  
BETELU  
948 513 007  
[sotilgarajea@gmail.com](mailto:sotilgarajea@gmail.com)

**OKM**  
ABOKATUAK  
Eukeni Celaya Zubieta · Mikel Iraola Sarasua  
Arretxea, 1º, Alli. Tfnoa: 609 130 555

## ESKUTIK ESKURA

Abenduaren 8tik 10era bitarte bigarren eskuko azoka antolatu zuen Lekunberriko Udalak herriko frontoian. Hiru egunez, bertako jendea nahiz kanpotarrak joan ziren prezio baxuan arropa, oinetakoak, jostailuak eta beste-lakoak erostera. Gainera, Ibarberriko ikasle kuadrilla batek aukera hori aprobetxatuz txokolatea eta txistorra pin-txoak eskaintzen ibili zen, Saloura egingo duten ikasbidaia joateko dirua biltzen baitabilta.



## UTZI ZURE AMETSA ESKURA DUZUN POSTONTZIAN!

Badira zenbait aste Araxes ikastetxeko ikasle eta irakasleak amesten hasi zirela. Ikas Komunitatearen aldeko apustua egin zutenetik buru-belarri dabilta ikastetxea eraldatzeko lanean. Joan den abenduaren 22an, Olentzerok eta Mari Domingik eskolara egindako bisita aprobetxatuz eguberrietako ekitaldira joan ziren guraso eta herritarrei proiektua azaltzeko antzezlan bat eskaini zuten eta ondoren, herrian barna egin zuten kalejiran postontziak ostatu, denda eta establezimenduetan uzten joan ziren.

Beraz, dagoeneko herritarrek bere ametsa idatzi eta haranean zehar banatu dituzten postontzietan botatzeko aukera dute. "Nolako eskola amesten duzu?" Hori da erantzun beharreko galdera.

Bestalde, Ibarberri ikastetxeko familiek ere hartu dute erabakia. Ikastetxean Ikas Komunitatearen proiektuarekin bat egin edo alde batera uzteko bozketa egin zuten eta azkenik familien %94k baiezkota eman dio proiektuari. Beraz, Ibarberri ere Ikas Komunitatea izanen da hemendik aurrera.

## ONDARE KULTUR TALDEAK, LOGOTIPOA BEHAR DU!

Orain bi ale eskaini genizuen erreportajeaz azaldu bezala, Ondare Kultur Taldeko kideak geroz eta proiektu gehiagotan dabilta lanean. Larraungo ondare materiala nahiz immateriala kontserbatu, zaindu eta ezagutzera ematea du helburu taldeak. Taldeak jada badu izen bat, baina identifikagarria izan daitekeen logotipoa falta du oraindik eta horretarako lehiaketa bat antolatu berri dute. Edonork parte hartu dezake, logotipo bat edo gehiago aurkeztuz. Logotipoa euskarri digitalean aurkeztu beharko da, kalitate ertain edo handian.

Lehiaketan parte hartzeko epea otsailaren 18an amaituko da. Logotipoak [ondarekulturtaldea@gmail.com](mailto:ondarekulturtaldea@gmail.com) e-postaren bitartez jasoko dira eta sari-dunak bi laguntzako otordu bat jasoko du opari. Animatzen zara?

## JESUS JAIMERENA ABESBATZAK EZ DIO HUTS EGIN EGUBERRIETAKO ZITARI

Eguberri egunaren bezperan Jesus Jaimerena Abesbatzak kontzertua eskaini zuen Lekunberriko elizan. Azkeneko urteotan ohi bezala, oraingoan ere abesbatzako kideek txistularien eta danbolin-jolearen laguntza izan zuten. Juan Miguel Etxarri arituzen zuzendari lanetan eta pianoan eta organoan berriz Belen Balenciaga eta Xabi Urtasun. Aurtengo gonbidatuen artean, Leire Retegi leitzarra zegoen, txistuarekin eta atabalarekin Txori Hegada abestia eskaini zuen. Urteroko zita bilakatu da askorentzat abesbatzak Eguberrietan eskaini ohi duen kontzertua eta eliza goraino bete zen.

## ERA.EUS WEBGUNA AURKEZTU DUTE NAFARROAKO 28 EUSKARA ZERBITZUEK

Geroz eta gehiago dira Nafarroan euren seme-alabei euskarazko irakaskuntza eskaintzeko hautua egiten dutenak. Familia horiek askotarikoak izaten dira, euskara erabiltzen den eremuetan bizi dira batzuk, beste batzuk ez, familian euskaraz egiten dute batzuk eta beste askok ez...

Eta tartean guraso horiek hamaika zalantza izaten dituzte, batez ere seme-alaben hizkuntza-garapenari dagokionez. Behar horiei erantzuteko asmoz, Nafarroako toki-entitateetako 28 euskara zerbitzuek, tartean Iparraldeko Euskara Mankomunitateak, era.eus webgunea sortu berri dute euskaraz ikasten duten haurren gurasoei laguntza eta baliabideak eskaini eta seme-alaben ikas-prozesua osatzeko.

Gurasoen ohiko zalantzak argitzeko informazioa eskainiko da, haurrentzako edukiak egonen dira eskura (ipuinak, jolasak, musika, aplikazioak...), 0 eta 12 urte bitarteko haurrentzako eskolaz kanpo jardueren bilduma ere zintzilikatuko da (kirola, ikastaroak, ludotekak...) eta haurrei zuzendutako euskarazko eskaintzaren agenda kontsultatzeko aukera izanen dute erabiltzaileek.



## HAMASEI URTE ETA ERDI ESPETXEAN EMAN ETA GERO ASKE GELDITU DA TXUS GOIKOETXEA

la hamazazpi urte eman ditu Txus Goikoetxea uztegiarrak espetxean, azkenak Sevillan. Abenduaren 20an goizeko 10:30ak aldera utzi zuten aske. Bertara joan ziren lagunak txanpainarekin ospatu zuten bere irteera. Gaueko hamaiketan iritsi zen Arrasatera, bertan bizi baitzen, eta Premin Sanpedrorekin batera egin zioten ongietorria herrian. Gurean, hilaren 23an, Atallun egin zen ekitaldi xumearekin egin zioten harrera Txusi. Senideek, lagunak eta eskualdeko herritarrek, musika, dantza, abesti eta hitzez eskaini zioten berotasuna goraino beteta zegoen frontoian. Bestalde, senideek ere urte hauetan guztietan jasotako laguntza eta babes eskertu nahi izan zieten bertaraturakoei.

# Miresmena

Bueno, ba hemen gaude 2018an. Urte berria, helmuga, leku, pertsona... esperientzia berriak eta bla bla bla... Betikoa, urte berria hasi da eta honekin promesa berriak. Baina aldatu den gauza bakarria egutegia da, zein egunetan bizi zaren idazten duzun lehen hiru edo lau alditan, zazpiaren gainean zortzia jarri beharko duzula. Ez da beste ezer aldatzen abenduaren azken egunetik urtarrilaren lehenengo egunera, beste gau bat gehiago, beno ajea handiagoa agian, baina etxe berean biziko zara, bizilagun berberekin, herri berean, gobernu eta agintari berberak, liskar eta arazo sozial berdinak, erlijio eta gerra berdinak, errepresio berdina, kontsumismo berdina, fobia berdinak, intolerantzia eta errespetu falta berdinak.. Dena berdin.

Gauzak aldatzen direla uste dugu, auto berria, mugikor berria, gustuko dut botoiari emango dioten "lagun" berriak, arropa berria... baina ez da ezer aldatu, autoak auto izaten jarraituko du, kolore ezberdina eta gurpil handiagoak baina autoa da oraindik, mugikorrak eta gustuko dut horiek, zure bizitza eta autoestimua kontrolatzen jarraituko dute. Arropa... beno, hobe duzu gurasoen armairura joan eta hortik hartu edo bigarren eskuko dendetan, begiratu nuen azken aldian nahiko antzekoak ziren, eta uste dut tapatzeko eta babesteko duten helburua ez dela inoiz aldatu sortu zirenetik.

Gizakia, sortu zenetik egon da beti botere eta onespren bila, boterea lortzeko bide hau nahiko ezaguna da, eta pare batek zapaldu dute,

(zapaldu, batez ere zapaldu) esan beharra dut gizaki bezala gure helburua bete dugula, onartzen dudala. Gizakiok boterea lortu dugu beste edozein espezieren gainetik. Zorionak

Eta ez badute nahi, hortxe izango dut prest lehen aipaturiko txokotxoa.

Eskerrak oraindik espezie honetan pertsona pare bat geratzen diren. Eta iluntasunari argitasun pixka



guztioi! Espezierik boteretsu, indartsu eta odoltsuena gara. Ez dugu parekorik. Eta baldin badugu, laster bidaliko dugu miseria, zulo, kartzela edo txoko ilunenera, molesta ez dezan.

Baina onesprenaren parte oraindik ez dugu guztiz jorratua, ez gara gai izan eta hortxe dago kili-kolo. Eta ez zaigu gustatzen. Gorroto dugu besteek guk bezala ez pentsatzea eta gure arauak ez jarraitzea eta ez gara hau onartzeko gai. Orduan zer? Beno, beti esan izan digute gure gaitasunak hartu eta hauek erabiliz edozer gauza izateko edo lortzeko gai garela. Ba kitto! Nire boterea hartuko dut eta beldurra eta bortizkeria erabiliz nire onspena sortu eta denak behartuko ditut hau onartzera.

bat ematen dioten. Eskerrak minak gutxitzeko prest dauden pertsonak badiren. Ezerezetik abiatu eta berdintasuna aldatu, magia sortzen duten pertsonak. Eskerrak asko diren sortzaile, idazle, musikari, artista, besarkada, irribarre, ahots, begirada eta uneak. Onspena lortzeko sormenaren edo giza elkartasunaren super ahalmenak besterik behar ez dituzten pertsonak. Eskerrak pertsona hauek berdina den hori aldatzen duten. Eta badakizue zer den onena? Ez dutela onspenik behar, ez dutela onspenagatik egiten. Eta nik ez diet emango, ez dut onspenik beraientzat, beraientzat dudana hitza beste bat da. Miresmena.

luze

# Nire barruko umea, minak eta jolasteko beharra

Urteak igaro ahala, ume izatetik nagusiak izatera iristen gara. Atzean geratzen dira ume garaiko bizipenak, gehienez oroimen batzuk baino ez dute irausten. Badirudi, haurtzaroa atzean uzten dugunean, izan ginen haurra betirako joaten dela. Baina zuhaitzen enborrek eraztunak dituzten bezala, urtero-urtero geure barruan ere ikusten ez den eraztun bat gehitzen da eta izan ginena barruan geratzen da. Urteak pasa eta tipula bezala bagoaz geruzak gehitzen, ez gara puztu egiten den Michelineko panpina. Horrek garrantzia du, handia gainera, geure izaera emozionalan. Nire barruan geratzen dira, haurra eta umea izan nintzeneko gaizki sendatutako zauriak, bizipen mingarriak eta bizipen onak ere, jakina. Sendatu gabeko zauriak, besterik gabe ez dira joaten eta, guk jakin gabe, eragin handia dute geure osasun fisiko eta emozionalan nagusitzean.

Aurreko batean, kontsultara etorri ziren ama eta alaba. Amak 55 urte eta alabak 33, hortaz, biak adinez nagusi. Haien arteko harremana ez da inoiz ona izan, batzuetan hobe, beste batzuetan okerragoa. Egun, oso garai txarra ari dira bizitzen eta horregatik nigana jotzea deliberatu zuten. Alabak amorru handia sentitzen du amarekiko eta noizean behin oso modu gaiztoan zuzentzen zaio amari. Mehatxuak, irainak, esaldi bortitzak ("ama, ea noiz hiltzen zaren ni bakean uzteko", "ama gorroto zaitut" eta antzekoak) eta txantaje emozionalak iloba erabiliz. Ez alabak, ez amak ez dute ulertzen zergatik hau guztia. Atzera egin genuen haien

bizitzetan, ume eta gazte garaietara. Agertu zen lehenengoa izan zen amak alkoholarekin urtetan zehar izan zuen menpekotasuna. Alabak, antza, ama maiz edanda gogoratzen zuen bere gazte garietan. Aitak, aldi berean, antzeko arazoa zuen alkohola eta beste droga batzuekin eta jipoitu egiten zituen emaztea eta alabak. Hala ere, aitarekin aspaldi bukatu zen harremana, gurasoak banandu eta ama eta alabak beste nonbaitera joan baitziren bizitzera. Azkenean, amak ere terapia egin eta



alkohola utzi zuen duela urte batzuk. Hau gutxi balitz, saioan, beste oroitzapen batzuk agertu ziren. Esaterako, alabak 13 urte zituenean eta aitarekin egotea suertatzen zitzaion asteburu batekoa. Alaba, ez zegoen gustura aitaren etxean eta amaren etxera itzultzea erabaki zuen aitarekin egotea tokatzen bazitzaion ere. Etxera iristean, bertara sartu eta sukaldean ezagutzen ez zuen gizona aurkitu zuen biluzik, ama, oraindik ohean zegoela. Egoera latza neskatoarentzat eta are makurrago ama azaldu zenean, bere onetik aterata. Ez zuen neskatoa etxean nahi eta kalera bidali zuen indarrez, bi aldiz pentsatu gabe. Saioan, negar handia egin zuen

alabak hau eta beste pasadizo batzuk gogoratzen. Gehienak, erdi ahaztuta zeuzkan, baina lan pixka bat egin da hasi ziren azaleratzen. Hau guztia lantzen ari gara, zauriak sendatzeko.

Baina, zauriak aparte, geure barruan ere umearen beste aurpegi batzuk daude. Jolasten eta amesten zuen umea, esaterako. Ume hau ere, maiz kanpora ateratzeko irrikan dago eta ilusioz bizi ditzake bizitzaren une batzuk ere, nahiz eta laurogei urte izan. Umeen artean ilusioa eta jolasa indar handikoak dira biak. Eguberritan, adibidez, berriro pitzen zaizkigu eta geure buruan ez baditugu guztiz bizitzen ere, saiatzen gara gure seme-alabek bizi ditzaten. Hauekin ere, jolasten dugun bakoitzean geure barruko umea ari gara ateratzen. Eta zein ongi pasatzen dugun orduan! Umeak ez du asko behar, gainera, ongi pasatzeko, maitasunezko giro batean. Olentzeroren magia bizi, piratak garela jolastu edo, besterik gabe, elurrarekin panpinak egin. Dena da posible umeen imajinazioan.

Barruan daramagun umea, etengabe ari da geure atentzioa eskatzen nagusitzen garenean, bai erdi ahaztutako minak daudelako, bai maitasunaren beharra sentitzen dugulako, bai fantasiaren mundua erakartzen gaituelako. Txikitako ga-beziak, alde batetik, eta gaztetako jolaserako gogoak hor daude. Geure barruko umeari kasu egiten diogun neurrian, nagusitako zenbait arazo konpontzeko bidean jarri eta bizi hobe bat bizi dezakegu heldu bezala.

# Doinu bera, hamaika aldaera

*Orain dela urtebete kaleratu zuen Juan Mari Beltranek Larraungo Herri-dantzak izeneko bilduma. XX. Mende hasieratik erdialdera arte egiten ziren dantzak, doinuak eta musika-tresnak bildu ditu. Euskal Dantzarien Biltzarrak eta Lekunberriko Udalaren babesarekin kaleratutako lana da.*



lax kaleratu zuen Juan Mari Beltranek Larraungo herri-dantzei buruzko bilduma. Arg: Soinuenea.

Alliarra zuen ama Juan Mari Beltranek, Luisa Argiñena. Donostian jaio zen, nahiz eta hamabost urtera arte Etxarri Aranatzan bizi izan zen, familia berriro Donostiara bueltatu zen arte. Hala ere, Juan Mari betidanik izan du harremana Larraunekin, batez ere Iribasko herriarekin. Musikaren munduarekin lotuta egon da beti, eta aski ongi ezagutzen ditu Larraungo doinu eta dantzak. Juan Mari: "Zazpi urterekin hasi nintzen musika ikasten Etxarriko Udal Musika Akademian eta hamaika urterekin jada musika bandan jotzen nuen".

Urtean gutxienez bitan etortzen omen ziren Larraunera, udan eta Eguerberrietako eta Aste Santuko oporraldian. Ama gaixotu egin zen ordea eta gaixaldi horrek iraun bitartean bi seme gazteenak hona bidali zituen. Bixente Allira eta Juan Mari Iribasera, Trutxoneara, osaba Juan Bautistaren etxera. Urtebete osoa eman zuen Juan Mari hemenean, bertako eskolara joan zen ikasturte hartan eta izugarri estutu zen herritarrekin zuen harremana.

Etxarrin ikasi zuten bi anaiek txistua jotzen eta Donostiara bizitzera joan zirenean ere jotzen jarraitu zuten. J.M.: "Donostian bazen txistulari on bat, ospe handikoa, Isidro Ansorena, udal txistu taldeko zuzendaria eta kontserbatorioan txistu irakaslea zena. Harrengana eraman gindun attak eta harekin jarraitu genuen". Ondoren Argia dantza taldean sartu zen Juan Mari eta taldearen errepertorioa zabaltzeko asmoz Iribasko ingurutxoan ikasten hasi ziren.



Horrela hasi zen ezagutzen “Larraungo herri-dantzak” bilduman bildu dituen XX. Mende hasierako dantzak, doinuak eta bertako musika tresnak. Juan Marik hemezortzi urte zituen eta ordurako galdua zegoen ingurutxoa Iribasen. J.M.: *“Nere ama zena 1912an jaioa zen eta berak hamalau urte zituela ezagutu omen zuen ingurutxoa herrian, ondotik ez zen ingurutxoa dantzatzen. 1963an hasi ginen berreskuratzen. Argia dantza taldean nabilela hasi nintzen partiturak idazten, hasieran grabagailurik gabe, entzun eta idatziz. 1971tik aurrera hasi nintzen grabaketak gordetzen. Juan Bautista Lasarterekin ikasi nituen doinu eta dantza asko Truxoneko sukaldean, berak dantzatu eta abesten zuen bitartean”*. Lan hori egiten ari zela Iribasko gazteak animatu eta haiek ere ingurutxoa dantzatzen ikasi zuten. Lekunberriko frontoian 1968an aurkeztu zuten lehenengoz. Hasiera batean, iribastarren asmoa dantzatzen jarraitzea bazen ere bertan behera gelditu zen, handik urte batzuetara herriko festetan dantzatzen hasi ziren arte eta ondoren Basakaitz taldeak hartu zuen lekukoa.

Ingurutxoa herri gehienetan dantzatzen zen garai batean eta batetik bestera aldaera txikiak bazituen ere ia berdina zen haraneko herri guztietan. J.M.: *“Iribasen ematen dugun ingurutxo hori Larraunen ezagutzen den Ingurutxoaren bertsio bat da. Ez zegoen ezberdintasun handirik, Ingurutxo guztiek hiru zati dauzkate, Inguru handi, Inguru txiki eta gero*



Iribasko gazteek Iribasko ingurutxoa Lekunberriin aurkeztu zuten 1968an. Arg: Soinuenea.



Iribasko herritarrek herriko festetan ingurutxoa dantzatzen hasi ziren. Arg: Soinuenea.

*tarten izaten den Zortzikoa edo Be-launtzingoa. Gertatzen dena da Iribasko ingurutxoa dantzatzerakoan bukaeran beti sartzen dugu Jota eta Arin-arina edo garai batean Bizkaikoa deitzen zitzaiena. Jota eta Bizkaikoa ez dira ingurutxoaren zatiak. Garai batean ingurutxoa dantzatzen zenean ondoren dantzaldiarekin jarraitu ohi zuten eta dantzan jarraitzen zuten, horregatik ondoren dantzatu ohi dira horiek”*. Horrela, Iribasko ingurutxoa berreskuratzen eta ikasten hasi bazen ere, Larraungo bestelako aldeak ere ezagutzeko erronka jarri zion Juan Mari.

●● Juan Mari Beltran

## “Sunpriñuarena artzainen musika da, konpasik gabea, librea”

### **Ingurutxoak berreskuratzeko egin-dako grabaketa haietan bestelako dantzak eta doinuak ezagutzen joan zinen...**

Bai. Adibidez niretzat oso garrantzitsua izan zen sunpriñuaren historia. Nik gogoratzen dut Bixente eta biok Iribasko ostatuan txistua jotzen ai ginela Martikoneko Matias eta Perikok bota zigutela: “Guk e jotzen genun! Guk supriñua jotzen genun!”. Eta horrela ezagutu genuen sunpriñua zer zen. Orduan baziren oraindik supriñu-joleak izan zirenak eta nola egiten zen bazekitenak.

### **Eta nola egiten zuten sunpriñua?**

Urritza makil bat hartu azala kendu bueltan bueltan ebakitzen zuten eta bi zulo egiten zizkioten. Hiru nota, konbinazio mugagabearekin.

### **Sunpriñua zein herrietan jotzen zuten?**

Larraunek bi alde ditu, Urrizti-herri eta Oterri. Madotz, Oderitz, Astitz, Alli, Iribas, Baraibar, Albiasu eta Errazkin Urrizti-herri aldekoak dira eta gainontzekoak Oterrikoak. Urritz makila behar zenez supriñua egiteko Aralar aldeko herrietan soilik jotzen zuten supriñua, Oterri aldeko herrietan ez zuten jotzen. Bestelakoak ere ezagutu nituen, Errazkinen adibidez antzekoa jo ohi zuten, tutubila edo tronpeta deitzen zioten. Baina tutubilak ez zuen zulorik. Eraso Txikiko Zelestino Artolak gaztainondo makilarekin egiten zituen tutubilak. Gerora jakin nuen Aralarko bestaldean, Gipuzkoan ere supriñua jotzen zutela.

### **Eta nork jo ohi zuen tresna hori?**

Artzainek jo ohi zuten. Sunpriñua egin eta mahai gainean utziz gero

bihar lortuko duzu jotzea, baina etzi ez. Lehortu egingo da, gogortu eta akabo, bere malgutasun natural hori galdu egingo du. Horregatik artzainek, beti uretan gorde ohi zituzten, ur-putzuetan, asketan... Horrela denbora luzeagoan irauten zuen, baina behin barruko izerdi hori galtzen zuenean usteldu egiten zen. Horregatik, supriñua maiatzean hasi eta Sanferminak bitarte jo ohi zuten, Iribasen ba omen zen Sanmartinak arte mantentzea lortu zuenik ere.

### **Mendian jotzen zuten...**

Bai, momentu askotan jo ohi zuten aspertuta zeudenean edo gogoa zutenean. Artaldeak beti ur putzuetatik edo asketatik gertu ibiltzen ziren eta beraiekin artzaina. Ez zen dantzatzeko doinu bat. Sunpriñuarena artzainen musika da, ez dauka konpasik, librea da. Artzain batek jo ohi zuenean, beste batek entzun eta agian beste puntan jotzen hasten zen. Iribasko Muxkurren adibidez, aska handi bat omen zegoen, eta Iribasko artzainek handik jotzen omen zuten, bertan omen zegoen joaldi ofiziala. Ilunabarrean askotan supriñua hartu eta Iribaskoek jotzen zuten moduan, Baraibarkoek eta ingurukoek ere jotzen zuten eta etxeko ikuluetan lanean ari zirenek ere entzuten omen zuten. Haranean giro bat sortzen zuen horrek.



Larraungo sunpriñua.  
Arg: Labrit.



Errazkingo Zelestino Artola  
tutubilak egiten.  
Arg: Soinuenea.

**Larraungo herri-dantzen bilduma eskuragai dago Soinuenean eta Mitxausenea Kultur Etxean.**  
**Espainolezko bertsioa**  
**[www.soinuenea.eu](http://www.soinuenea.eu)**  
**atarian eskuragai.**

# Nor da Nor?



Aurreko alean kaleratutako argazkia Lekunberriko Pilarika jaietan ateratakoa da. Orduan ere Mus Txapelketak antolatzen zituzten! Ezkerretik eskuinera:

Joxe Elizalde, Jose Miguel Aldabe, Iñaki Mikeo, Joxe Mari Aierdi, Jesus Miguel Mariñelarena (Joxe Mariren atzean) eta Gregorio Aierdi.

nor da nor?

# Nor da Nor?



*Nortzuk azaltzen dira argazkian?  
Non ateratakoa da?  
Noiz ateratako argazkia da?*

Bidali iezazkiguzu zure argazkiak denon gozamenerako mailope@labrit.net helbidera edo 638 652 339ra deitu eta kudeatuko dugu.

 **ALIPROX**  
Lekunberri  
*janaridenda*  
hamabostaldi  
eskaintza bereziak

*Iñigo Garaioa*  
**MARGOLARIA**  
 696 658 288  
**LEKUNBERRI**

 **SUAKONTROL LEKUNBERRI**  
*Suaren kontrako plakak*  
Oztegin kalea 25,  
Lekunberri  
948 60 48 96 (Tel.)  
948 60 45 16 (Faxa)  
suakontrol@grena.es  
www.grena.es

**IORTIA** LI. INCA DITRETA | HORTZ BERRIKIA  
Juanjo Gaite García · Odontologoa Kol. Zbkia. 317  
Estitxu Telleria Elorza · Odontologoa Kol. Zbkia. 591  
Lekunberri: 948 604 804 · 618 818 005  
Altsatsu: 948 467 603 · 667 66 17 69  
ODONTOLOGIA OROKORRA · INPLANTEAK ·  
ORTODONTZIA · HORTZ-ESTETIKA · PADI

AZKARATEKO ALLANDOAK

Gurean ere izan da beste urte batez...

Aurten ere ez du huts egin Olentzeroak. Gabon gauean etxez etxe ibili zen haur eta helduek eskatutako opariak banatzen. Araxes eta Ibarberriko ikasleek pare bat egun lehenago izan zuten berarekin egoteko aukera eta urtero bezala, eskolan ikasitako dantza, antzerki eta abestiak eskaini zizkieten Olentzerori eta Mari Domingiri. Aurten, Olentzerok Errazkinera joateko beta ere izan zuen. Abenduaren 22an, ilundu eta gero iritsi zen herrira eta herritarrek harrera egin eta gero elkartean jaso zituen txikienen eskutitzak. Eguberri bezperan berriz, goizez Atallun eta Arriben egin zioten harrera. Bien bitartean, larraundarrak kalera irten ziren koplak abestu eta etxez etxeko puska-biltza egitera. Eta Azkaraten eta Gaintzan ere allandoen ohiturari eusten diote.



GAINTZAKO ALLANDOAK



**Antsoenea**  
BASERRIKO GAZTA

948 513 468  
www.antsoenea.com  
Uztegi (Araitz)

**INFORMATIKA ARALAR**  
LEKUNBERRI - ARAITZ  
LARRAUN  
JALMENTA ETA KONPONTZER

634 551 743  
infoaralar@gmail.com

**AUTOZERBITZUA · ARRAINDEGIA · HARATEGIA ·**  
**PATXI GALARZA**  
Astelehenetik larunbatera  
8:00 - 14:00, 17:00 - 20:00  
Igande eta jaiegunetan  
8:00 - 14:00  
Irurtzun

**SAN MIGUEL**  
Taberna-Jatetxea  
Arribe  
948 51 31 34

## LARRAUN



Arg: Ibarberri.

## DBHko ikasleak mintzakideko ikasleekin



Joan den azaroaren 24ean, Ibarberri Eskolako DBH2ko ikasleok, Larraungo Aek-ko kideek gonbidaturik, bertako ikasleekin mintza praktika egiteko aukera izan zuten. Taldeka hainbat galdera prestatu zituzten bertako ikasleei egiteko. Gustora egon ziren talde txikietan elkar ezagutzen eta hizkuntza praktikan jartzen. "Hemendik aurrera, beraiekin kalean topo egiten dugunean badakigu zein hizkuntzatan agurtu behar ditugun! Mila esker Aek-ko ikasle eta irakasleei, oso gustura egon ginen zuen artean".

## ARAITZ ETA BETELU

## Kultur Aldia, urtetik urtera arrakastatsuagoa



Abenduaren 2tik 9ra bitarte hainbat kultur ekitaldi antolatu zituen Araitz eta Beteluko "Euskaraz bizi" taldeak Araitz-Beteluko Kultur Aldiaren baitan. Artisau azoka, hitzaldiak, antzerkia, bertso-afaria, kontzertuak... Arrakasta handikoa izan da beste behin ere Kultur Aldia eta horregatik Araitz eta Beteluko "Euskaraz bizi" taldeak eskerrak eman nahi dizkie aurtengo kultur astearen antolaketan laguntza eskaini duzuen guztiei. "Jardueraz beteriko astea izan dugu, gai eta arlo ezberdinak lantzen saiatu gara, adin tarte guztiak aintzat hartu eta gaur egun interesgarriak izan zitezkeenei lehentasuna emanaz. Eta pozgarria da jendeak horren ongi erantzutea; herritarren parte hartzea beharrezkoa baita gure proposamen honek arrakasta izan dezan!! Herritarrok kultur astearekiko daukagun sentsibilizazio, motibazio hori da, datorren urteari begira, lanari ekiteko indarra eta gogoia taldeari ematen diona".

## Bar Ainhoa

- Razioak
- Pintxoak
- Ogitartekoak
- Plater konbinatuak
- Gosariak Tostadak mermeladarekin eta bertan eskuz egindako madalenak, erroskilak, croisant-ak eta napolitanak.



Astelehenetik ostiralera goizeko 7:00etatik aurrera

Aralar 15, 31870 Lekunberri (Nafarroa)

948 504 077 • 639 778 851 • aitziberalf@hotmail.com

German Lasarte  
ARDEONDO  
HARATEGIA  
Aralar kalea 9  
Lekunberri  
948504157

CONSULTORIO VETERINARIO, S.L.

HIRUROK S. VETERINARIOS

Telefono zenbakia eta faxa:

948 50 43 31

Lekunberri

**aitz  
berri**

edertasun  
zentroa

Lako beikoa  
Betelu 31890

948 513 083  
696 732 290

aitzberri@hotmail.com

# “Orain arteko diskorik laburrena izanik ere, oso-oso gustora gelditu gara”

*Taldearen 20. urteurrena disko hirukoitzarekin ospatu ondoren, kalean da Berri Txarrak taldearen bederatzigarren diskoa, “Infrasoinuak”. Hamar kantu berri bildu dituzte bertan.*

## **Oraindik diskoa entzun ez duen horrek zer aurkituko du disko honetan?**

Egia esan ez da haustura dakarren disko bat, aurreko diskoetan esperimentazio gehiago egon dela uste dut. Jendeak esaten digu gure influentzia guztien halako konglomeratu bat dela. Disko laburra da, 32 minutukoa eta uste dut gehiagorako gogoz uzten zaituen disko bat dela, hori guk bilatu dugun zerbait da. Guretzako onak ziren hamar kantu genituen eta grabatzea erabaki genuen. Orain arteko diskorik laburrena izanik ere oso-oso gustora gelditu gara. Asebeteta!

## **“Infrasoinuak” jarri diozue izena disko berriari...**

Bai. Ez da disko kontzeptual bat, denetik dago, badaude kantu pertsonalagoak eta disko guztietan bezala badago musikari buruzko kanturen bat, Katedral bat edo Beude adibidez... Baina egia da badirela “Infrasoinuak” izen horren pean sartu daitezkeen kantu batzuk ere, “inakzioari” buruzkoak eta azpian egote horrek dakarren borrokari buruzkoak... Gai zabalak dira eta kantua entzuleak bukatu behar du.

*“Batzutan gertuago sentitzen naiz Brasilgo talde horrekin hemengo zenbaitekin baino”*

Letrek irakurketa bat baino gehiago izan dezatela gustatzen zait.

## **Baude abestian hainbat areto aipatzen dituzue, tartean Lekunberriko Kantina... Munduan barna ibili arren, hemengo taulak bereziagoak dira akaso?**

Ez da hainbeste Euskal Herrikoak dirrelako, hori ere badago, baina areto txikiak aldarrikatzea da gehiago asmoa. Gu gaztetxeetatik eta areto txikietatik gatoz. Baina Euskal Herrikan kanpo badago beste eszena bat lurraldetik haratago doana eta unibertsal dena. Gu orain adibidez Alemaniara joaten garenean Brasilgo talde batekin edo talde poloniar batekin jotzen dugu eta hor rock and rollaren eszena bat sortzen da. Eta batzutan gertuago sentitzen naiz Brasilgo talde horrekin hemengo zenbaitekin baino. Jarrera ezberdina dutelako, furgonetan sartu eta goazen jotzera! Edo gauzak egiteko grina hori dutelako. Hemen ere denetik dago, baina esan nahi dut badagoela hizkuntzaz eta kulturaz haratago beste eszena bat. Azkenaldian “festibaltis” handia dago, eta festibalak oso ongi daude, baina horiei askotan ematen zaien tratamenduak nerbioso jartzen nau. Festibal batean inporta beharko lukeena musika izan beharko luke eta hotelak betetzea edo bestelako horiek albo-onurak baino ez lukete izan beharko. Musika jaialdietan jotzea inportantea da eta gu ere hor gaude, baina saiatzen gara areto txikietan ere jotzen, gu hortik gatoz eta ezin dugu ahaztu.



### **Zu izan zinen KantinaRock bultzatu zuenetako bat... Zer suposatu zuen hark zuretzat?**

Hasieran kontzertu asko eman genituen, gero ez zen guztiz desegin martxan jarri genuena, baina azkenean ardura da. Adibidez pertsonalki nire kasuan behin biran hasi nintzenean ezin nuen ardura hori izan, musikari izateak horixe dauka, kontzertuak ikusteko aukera gutxi daukazula. Eta ezin duzu zuk zer bait antolatu eta bertan ez egon. Baina Kantina musikazaleentzako areto garrantzitsu bat izan da eta uste dut urteekin baloratuko dela gehiago. Hemendik oso talde onak pasa dira Belako, Niña Coyote... Egon da Bider Ertzean disko berria aurkezten, Anari... Lekunberrin bertan, igande batean izateko, aukera zabala eskaini da. Nik pena hartu nuen belaunaldi berritik ez zelako jende gehiegi engantxatu. Badakit zaila dela, baina nik ere gustora ikusiko nuke gazte jendea beren kontzertuak antolatzeko. Hori ez zen pasa eta pena hori daukat, baina Kantinak hor jarraitzen du, oraindik egiten dira kontzertuak eta hor oso areto inportante bat daukagula iruditzen zait.

### **2018an hasiko zarete disko berriren birarekin...**

Bai, Bartzelonan, Madrilen eta BECen dauzkagu kontzertuak aurreikusita, baina aurretik, urtarrilean, Asiara eta Australiara goaz. Gau berezi bat prestatzen ari gara BECeko kontzertu-



*“Gau berezi bat prestatzen ari gara BECeko kontzerturako”*

turako. Ikuskizun mailan ere halako jauzi bat eman nahi dugu. Inoiz egin dugun kontzerturik handiena izango da eta guretzat ere berria da eta inportantea da 20 urteren bueltan horrelako erronkak izatea.





## Hodei Otegi, Nafarroako atleta onenen artean

Nafarroan atleta onenak saritu zituzten joan den hilaren 20an Cordovillako Unsain Renault kontzesionarioan antolatu zen Nafarroako Atletismoko II. Ekitaldian. Junior kategoriako atleta onenak saritzeaz gainera, joan den denboraldian errekorrak lortu zituzten kirolari nafarrei egindako esfortzua aitortu zieten. Tartean zen, Lekunberriko Hodei Otegi, kadeteen mailan joan den ekainaren 17an Lorcan 4x300 metroko proban egindako denboragatik, 2 minutu eta 32 segundutan lortu baitzuen proba amaitzea. Zorionak!!

## Helvetia Anaitasunak B.M. Huescaren aurka jokatu du Lekunberrin

Eskubaloi partiduak izanen dira ilbeltzaren 27an Lekunberriko kiroldegian. Helvetia Anaitasunak B.M. Huescaren kontra jokatu du arratsaldeko 19:30etan. Aurretik, 17:30etan infantil partidua izanen da, Beteluko eskubaloi taldea Noingo taldearen aurka arituko da. Sarrera doakoa izanen da.

## Mendizaletasunari buruzko hitzaldia Iñurrategiren eskutik

Alberto Iñurrategi, mendizale gipuzkoarrak hitzaldia eskainiko du ilbeltzaren 20an Lekunberriko udal aretoan. Ttutturre Kirol Elkarteak, Kirol Mankomunitateak eta Lekunberriko Udalak antolatu du saio eta arratsaldeko 19:30etan izanen da. Mendizale gipuzkoarrak esperientzia handia du goi-mendietan, munduko zortzi mila metrotik gorako hamalau mendiak egitea lortu duen hamargarrena da. Hitzaldia guztiz doakoa da, beraz, animatu eta hurbildu zaitez!

## Kick Boxing entrenamenduak Plazaola kiroldegian

Kick Boxing ikastaroa eskainiko dute Lekunberriko Plazaola kiroldegian ilbeltzetik aurrera. Entrenamendu saioak ostiraletan izanen dira 19:00etatik 20:30etara.

Informa zaitez eta eman izena 948 50 73 77 telefono zenbakian.



Salmenta publiko zuzena prezio ezin hobean  
Ordutegia, 9:00etatik 13:00etara eta  
14:30etatik 17:00etara



# BACALAO ELKANO S.L.

**Industrialdea, 11**  
**31870 Lekunberri - Nafarroa**  
**Tel.- 948507319 Fax.- 948604792**  
[bacalaoselkano@jet.es](mailto:bacalaoselkano@jet.es)  
[www.bacalaoselkano.com](http://www.bacalaoselkano.com)





## Aurtengoan, gaztarik gabe etxera!

Dagoeneko bosgarren urtea du Oier Sanjurjok Araitz eta Beteluko Oier Taldeko kideek antolatu ohi duten bazkarira etortzen dela. Osasunako jokalaritari 2013an luzatu zioten gonbita lehenengoz eta geroztik, urtero otordu baten bueltan elkartzen dira. 30 lagun inguru bildu ziren joan den hilean Beteluko ostatuan antolatutako bazkarian. Joan den denboraldian Lizarrako jokalaria sartutako gol bakoitzagatik gazta bat oparitzeko ohitura dute, aurtun ordea gaztarik gabe joan zen etxera, gol bakar bat ere ez baitzuen sartu.



## 173 izan da Larraungo Pilota Eskolako saskiaren zenbaki sariduna

Larraungo Pilota Eskolak bertako komertzioek eskainitako produktuekin osatutako saskia zozketatu zuen Lekunberriko festetan. 173. zenbakia izan da sariduna eta dagoeneko badugu bere jabearen izena, Eneko Lekuona. Zorionak!!

## Beteluko plazan hasi eta buka

Ilbeltzaren 14an Araitz-Beteluko XIII. Krosa izanen da. Eguerdiko hamabietan Beteluko plazan emanen zaio hasiera 7,7 kilometroko lasterketari. Aurtun lasterketa plazan hasi eta amaituko da, hala erabaki dute antolatzaileek errepidea trafikoari guztiz itxi ezinak sortzen dituen segurtasun arazoak saihesteko. Emakumezkoetan zein gizonezkoetan sailkatzen diren lehen hiruzentzako sariak izanen dira, 120 euro, 80 euro eta 60 euroko sariak hurrenez hurren. Eta haraneko korrikalari azkarrenentzat ere sari bereziak izanen dira, 50 euro, 40 euro eta 30 euro lehen hiru sailkatuentzako. Goizeko 10:30etan haurren lasterketa izanen da. Aurre-benjaminak 300 metro egin beharko dituzte, benjaminak 700 m, alebinek 1.500 metro, infantilek 2.000 metro eta kadeteen kategorian parte hartuko dutenek proba nagusiko zirkuituari buelta bat eman beharko diote (3.500 metro).

Gaztetxoek egunean bertan izanen dute lasterketan izen emateko aukera, Beteluko eskolan, goizeko 9:30etatik 10:00etara bitarte. Eta proba nagusian parte hartzeko eman izena [www.kirolprobak.com](http://www.kirolprobak.com) atarian.



**NEKAZARITZA, INDUSTRIA ETA ERAIKUNTZA  
ARLOETAKO HORNIGAIK  
BURDINDEGI ETA BRIKOLAJEKO TAILERRA**

**URZUBI S.A.**

Tel. 948 50 42 41  
Fax 948 60 45 20

Lekunberri  
[urzubi@hotmail.com](mailto:urzubi@hotmail.com)

**TAXILON**

661 202 249  
(9 plaza)

Lontxo  
Otamendi  
Artola

E-posta: [lotamendi5@gmail.com](mailto:lotamendi5@gmail.com)

Atallu - Araitz

# Hitzaspertuan



●● Agurtzane Altuna

## Egoarrito!

*“Santa Luzia, eguna motza eta gaua luzia” dio esaerak. “Santa Luzia eguna, argirik gabe iluna” aittu izan diet nik beti etxekoai urteko eunik motxena aipatzeko. Hue re joan zen ta animo! Hemendik aurrea argie pixkeka-pixkeka lekue jaten joango zaio ilunei. Etxe-giro dau halai! Etxean, senide o lagun artean goxo-goxo eoteko eunek pasa berri dittuu; hoik e joan dee ta animo! Sutondo guztik ez baitue etxe-giro bera sortzen.*

*Pozik hartuko zun etxeko sokaldean epela ziegako hezetasunean eon den launek; ongiatorri Txus! Pago eurre izanda're aakillek ez due behar aña beotu aurten aurrenekoz amonak sutondoan utzitako hutsunea. Hutsunea beti hutsune baita maitasunez betetzen saiatzen bagea re.*

*Gabon kantak kaletan; musike tope dendetan; arkumean marrakak ikullutan; umean oihuirrintzik apartean; geo ta ixilleo, geo ta lausogo. Badie ilune ttikitzen, baño oanyo ilbeltza bete-betea. Barne mundun bildu eta lugorri garaie omen da oaingoa; askok beldur dio ilunei, baño beharrezkoa omen da argire allaatzeko; hau re joango'a ta animo!*

*Egoarritoak bisten dee Mallotan; ez ta señale txarra. Neguen hotza epeltzen ai den señale. Egoarritako zorion betiereko eta ahalguztidun horrekin mozkortu eta biarren eguarrik deenik ez pentsatu egoarritoak; San Fermin txikitoak bezala! Egoarri artifizial eta kontsumistan bertsio light bat re izan zitezken egoarritoak, baño ez, ez tee ba hoi're!*

*Temperature iyotzen hasten denean, elurrek deseitten hasten dee, bihotzak xamurtzen, eta pixkeka elur-jausi ttikietzuk sortzen dee. Elur masa zurin mantentzen saiatzen dee malutatxo guztik tinko, beño eziñen eziñez batzuk goittik beira heldu dee xuabe. Arrasto marron xumeatzuk elur zurien artean, hoitxek dee egoarritoak; aurreneko epeltasun zantzuk izotzan aiztoan, izotzan gaiztoan.*

*Egoarrik joan dee, egoarritoak hemen dee. Sutondoan, izotzetan, epelean, eo hotzetan elurretan, urte berriko argiek hartu zaiola lekue zuun ilunei.*

*Aio Egoarri; iepa Urte Berri!*

*Iepa egoarrito; aio guante ta gorrito!*

## Beteluko zaharren egoitzako langileek euren lan-baldintza eskasak salatu dituzte



Joan den abenduaren 14an Beteluko zaharren egoitzako langileek prentsurrekoa eskaini zuten pairatzen dituzten lan-baldintzak salatzen. 2013ko abuztuan Mariano Rajoyren gobernuak onartutako lan erreformaren ondotik Asistencial Villa de Betelu egoitza kudeatzen duen taldeak Mendeko Pertsonen Zaintza eta Norberaren Autonomiaren Garapen Zerbitzuen Estatu mailako Hitzarmen Kolektiboa aplikatu zuen eta geroztik lan-baldintzek okerrera egin dutela adierazi dute langileek. 100 lan-ordu gehiago eta 1.000 euro azpiko soldatak, Amma-Amavir taldeko enpresetan lan egiten duten gainerrako langileek dituzten soldatak baino %13 gutxiago.

Amma-Amavir enpresak berea du jabetzaren %66a. Jabetzaren herena aldiz, Beteluko Udalarena da.

Langileek salatu dute lan egiten duten baldintzetan, ezinezkoa dela zerbitzu duina eskaintzea bertan bizi diren adineko pertsonen. *"Langileek ezin diezaiokete eutsi geroz eta atsekabegarriagoa den egoera honi eta horren ondorioz, langileek geroz eta denbora gutxiago eusten diote lanpostuari. Enpresa ez denez gai sortzen diren bajei aurre egiteko, hainbat langilek txandak bikoiztu behar izan dituzte amaiezinak diren lanaldietan".*

Horregatik, Amma-Amavir taldeari eskatu diote lan-baldintzak negoziatu ditzala, gutxienez, taldeko eta sektoreko gainerako langileekin pareka ditzan. Eta bestalde, Beteluko Udalarik ezizusiarena egiteari utzi diezaiola eskatu diote eta Amma-Amavir taldea estutu dezala eskualdeko enpleguari nahiz eskualdeko zerbitzu publikoari eragiten dion gaia konpondu dezala.

Beteluko Udalak bere aldetik adierazi du, ez duela inoiz pasibotasunez jokatu eta ireki zenetik hona egoitzaren etorkizunaren alde laguntzen saiatu dela. Mikel Rekalde, Beteluko Udaleko alkateak azaldutakoaren arabera, 2013an, egoera ekonomiko kaxkara zela eta enpresa kudeatzaileari estatu-mailako hitzarmena aplikatzea legez zegoakion.

Garai hartan Beteluko Udalaren bitartekaritzarekin erdibideko hitzarmen bat proposatu zitzaizkien langileei. Baina ELAK emandako gomendioak jarraituz langileek Enpresaren proposamena baztertu zuten eta azkenean enpresak estatu-mailako hitzarmena aplikatu zuen.

Mikel: *"Ez da bidezkoa orain langileek Udala euren egoeraren errudun bizihurtzea, ez delako egoera horren ardura, ezta gutxiago ere. Beteluko Udalak hasieratik lagundu du egoitzak aurrera egin dezan, 300.000 euro baino gehiago inbertitu ditu. Egoera honetara ez iristeko bitartekari lanak ere egiteko geure burua aurkeztu genuen eta pena handiz hartu genuen langileen erabakia."*

Gure ustez ez zuten erabaki horrekin asmatu, eta handik geroxeago ELA sindikatua utzi egin zuten. Orain enpresa kudeatzailearekin negoziatu beharreko gai bat da edozein enpresetan getatzen den moduan. Guk langileentzako eta enpresarentzako hoberena desio dugu, baina momentuz ez dugu negoziatzeko horietan partehartzeko asmorik".

**M. Angeles Urrizalki**

**iragarkiak, berriak, eskalak...**

**Diario Vasco eta Diario de Navarrako Korrespontsala**

**948513056  
699179437**

**Atabal**  
okindugio

Era askotako  
ogiak eta gozoak

Etkez etxe  
banatuko dugu

Ogia enkargatzeko...  
**948513151**

**MAITE**  
harategia

**BERTAKO HARAGIA**  
Txistorra, txorizoa,  
saltxitxak,  
sukaldaturako platerak,  
Ettxera eramateko  
zerbitzua ere eskeintzen  
dizugu.  
Antigua Kalea N°7  
31890 BETELU  
Telf: 948 51 30 88  
maiteharategia@hotmail.com

# Neskak ere kantoreen taldean izanen dira aurtengo errege bezperan

Orain bi ale Mailopen Beteluko neska talde baten eskutik jasotako eskutitzak eztabaida piztu zuen Betelun. Aspaldiko ohitura da errege bezperan herrian barna puska-biltza egitea. Orain arte ordea, tradizioak hala markatuta, mutilek baino ez zuten parte hartzen. Mutilek egin ohi zuten lehen parranda izaten omen zen, lehen mozkorrak egun hartan harrapatzen omen zituzten 15 urte zituzten gaztetxoek.

Neska talde batek ohitura hori mistoa bilakatzeko ahaleginetan zenbait ezezko jaso ondoren, gurean iritzi artikulatu bat kaleratu zuen eta euren helburua bete egin da. 2018ko urtarrilaren 5ean lehen aldiz neskek ere Kantoreetan parte hartuko dute.

Abenduaren 10en herri bozketa egin zen Betelun. "Gustatuko litzaizuke neskek kantoreetan sartzea?" Galdera horri erantzun zioten boza eman zuten 123 herritarrek. Eta 3 boza nulurekin, 99 baiezkoekin eta 21 ezezkoekin baiezkoak irabazi zuen.



Bozketaren kontaktaren unea. Arg: Labrit.

## "Denak argi giñun ezezkoik eman ezin den gauze bat dela"

**Markel Iriarte eta Ander Elizalde Kantoreen taldeko kideak dira.**

**Ander:** Bilera bat ein giñun eta han denen arten adostu giñun baietz, neskek e sartuko ziela. Beño esan giñun herrie denez azkenean atea irekitzen diguna eta dirue ematen diguna, ongi eongo litzekela herri mailako bozketa bat ittea. Beño denak argi giñun ezezkoik eman ezin den gauze bat dela.

**Markel:** Nik ez nun beharrezkoa ikusten guk baiezkoa eman eta geo herri-galdeketa eittea.

**Herrian polemika handia piztu al da?**

**Ander:** Pixkat piztu da, beño ez nuke

esango kriston polemika izan denik. Jendea be iritzia ematen hasi da, batzuk alde daudela, beste batzuk tradizioekin jarraitu nahi duela eta badaude ere tradizioa mantetzea nahio arren neskek sartzean alde daudenak... Denetik entzun da.

**Markel:** Urrutigi aiatu ga ne ustez!

**Zein adin tarteko gazteek parte hartzen duzue Kantoreetan?**

**Ander:** 15 eta 21 urte bitartekoak. Lauetan hasten ga eta ordubata terdita luzatzen da. Ohitture da apezan etxean hastea, ondoren alkateana eta gero herriko gainontzeko etxeta.

**Markel:** Neskak aiatzekin aldatu in



beharkoa, janari gehio beharkoa, ardo gehio eta diru gehio hurrengo euneako.

**Eta baiezkoa aterako dela uste duzue?**

**Ander:** Bai, bai, seguro. Nik uste baiezkoa ateko dela alde haundikin eta hala beharko luke, beño nik herri-galdeketa ein nahi nun ze aste hotan zehar gauzek entzuten joaten zea eta iual sorpresa hartu eta uste baino ezezko gehio daude. Zenbat ezezko ateatzen dien ikusi nahi nun.



### “Ni harrapatu izan baninyu sartuko nintzen!”

**Ade Sotil beteluarra da eta bozkatzera hurbildu zen abenduaren 10ean.**

**Zer iruditzen zaizu neskek Kantoreetan sartzeko aukera izatea?**

**Ade:** Oso ongi, ni harrapatu izan baninyu sartuko nintzen ni ere!

**Eta zure garaien ez zen halakorik proposatu?**

**Ade:** Ez, hain barneratuta daukeu nei ez zitzatela inoiz bururatu oain hauei entzun arte. Eun hotan ez dut nere ingurun ezezkoik aitzait tokatu nei ezezkoik, beño ezezkoa ateako balitz errespetatu in beharko giñuke.



### “Neskak sartzea naturala iruditzen zait”

**Mikel Rekalde (Beteluko alkatea).**

**Mikel:** Niri ikaragarri ongi iruitzen zait hau bozkatzera eta gazteen artean sortu den eztabaida herriaren esku uztea.

Neskak sartzea naturala iruditzen zait eta orain ezezkoa aterako balitz, hurrengo urtean edo hemendik urte batzuetara berriro ere eztabaida hor egongo da.

#### Aurrekariak

Inork ez daki noiztik datorren Kantoreen ohitura, oso aspaldikoa da, egun horretan abestu ohi diren koplak bezala. Beste zenbait herritan ere egin ohi zen, Arriben esaterako. Han gabon gauean ere egiten zuten. Egun hartan neskek ere parte hartu ohi zuten baina mutilengandik bereizturik. **Ainhoa Iriarte:** “*Nik ezautu det gabon gauean puska-biltzan ibiltzea eta gogoratzen du Guardia Zibilaren kuartelean mutilei kriston diru pila eman zietela eta gure batez!*”.

Betelun, orain arte formalki eztabaidatu ez zen gai bat zen neskak Kantoreetan sartzeara, baina azkeneko urte hauetan tarteka ateratzen zen gaia. **Xabi Orejak** esaterako gogoan du bera Kantoreetan zegoen garaian neskei proposatu zitzaiela taldean sartzea, baina orduan bost neska inguru baino ez zeuden eta ez omen ziren animatu.

Kontuak kontu, erabakia hartuta dago eta dagoeneko hasiak dira Beteluko Txartinean Joxe Miguel Otxotorenarekin koplak entsaiatzen.

## KONTU TXIKIAK

### IRAGARKI TAULA

#### **IZENA DUEN GUZTIA BADA. GURE IZEN-ABIZENAK EUSKAL GRAFIAZ. EUSKALDUNAK, MUNDUAN IZATEKO.**

Euskal izen-abizenamodu ofizialetan eta leku guzietan euskaraz idatzita izan nahi baduzu, hiru pausotan egin dezakezu, erraza da:

1- Erregistro zibilera edo bake epaitegira joan eta esan izen-abizena euskal grafiaz ipini nahi duzula.

2- Han emango dizuten eskaera orria zure datuekin bete.

3- Agiri hauek eraman:

- Nortasun agiriaren fotokopia. Adinez nagusia ez bazara, gurasoena ere beharko duzu.
- Hitez hitzeko jaiotza ziurtagiria. Epaitegian eskatzen da.
- Errolda agiria. Udaletxean eskatzen da, eta adinez nagusia ez bazara, gurasoena ere beharko duzu.
- Familia liburuaren fotokopia. Ezkonduta bazaude edo seme-alabarik baduzu.
- Seme-alabaren nortasun agiriaren fotokopia. 16 urtetik gorako seme alabak badituzu.

Zure izena edota abizena euskaraz nola idatzi behar den kontsultatzeko: [www.euskaltzaindia.eus](http://www.euskaltzaindia.eus)



ARAXES GARAIKO MANKOMUNITATEA  
MANCOMUNIDAD DEL ALTO ARAXES

## GARBIGUNE IBILTARIA

Urtarilak 11, osteguna, PUNTU GARBIA MUGIKORRA pasako da.  
Bertara, honako hondakin mota hauek eraman behar dira:

- \*pilak, mugikorak
- \*bonbilak eta fluoreszenteak
- \*pinturak, barnizak, disolbanteak...
- \*autoen bateriak, olioak...
- \*foner, tinta kartutxoak...
- \*elektrogailu txikiak
- \*aerosolak, lixiba
- \*radiografiak, termometroak

Herri bakoitzean, etxeko olioak biltzeko dagoen ontziaren  
ondoan kokatuko da ondorengo ordutegian:

BETELU:	10:00-11:00 (ESKOLA AURREAN)
ARRIBE:	11:00-11:30
ATALLU:	11:30-12:00
AZKARATE:	12:00-12:30
GAINTZA:	13:00-13:30
UZTEGI:	13:30-14:00
INTZA:	14:00-14:30



**ILBELTZA**

**13,14 | UITZI:**

Uitziko ihoteak.

**14 | BETELU:**


Araitz-Beteluko XIII. Krosa.

**20 | LEKUNBERRI:**

"Porrotaren alde" hitzaldia Alberto Inurrategiren eskutik. Arratsaldeko 19:30etan Lekunberriko udal aretoan.

**27 | LEKUNBERRI:**

Eskubaloia Plazaola kiroldegian. 17:30etan Beteluko eskubaloi taldeak Noainen kontra jokatuko du. Eta 19:30etan, Helvetia Anaitasunak B.M. Huescaren aurka.



**SALGAI**

- Lekunberrin 90 metro karratuko etxe adosatua salgai, 3 logela, sukaldea, egongela, bi bainu, garajea eta terraza. 190.000 euro. Harremanetarako: 679 631 725 (Aitor).

**BESTERIK**

- Betelun azaroaren bukaeran urrezko lepokoa eta zintzilikarioa aurkitu ditugu. Jabeak deitu dezala 606 375 855 mugikor zenbakira.

- Collie arrazako bi txakur oparitzen dira. 3 hilabete dituzte. Ongi zainduko direnaren baldintzarekin emango dira. 620 403 220 (Iñaki).

**Hostal Betelu**

Eguneko menua, karta, plater konbinatuak eta pizza goxoak

Etorri eta on egin!

Erreserbak:  
948513026  
618557889

**AMAIRU bar**

ETXKO PIZZAK.  
KOPA BERGIZIAK

948504352

**Kantina Rock**

948 60 48 21

**KANTINA**

bokatak, platerak eta...musika .....

**LARRAUN**

GARABI ZERBITZUA 24 ORDUZ  
MEKANIKA ETA ELEKTRIZITATE TAILERRA

**Gruas y Talleres LARRAUN s.l.**

Lekunberriko industriagunea,  
21. nabea  
31870 Lekunberri  
Nafarroa

Mugikorra: 626 494 356  
Telefona: 948 507 229  
Faxa: 948 507 281  
gtlarrapun@gmail.com



2017

Oleñtzero

